

BESTELAKO XEDAPENAK

ENPLEGUKO ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

5453

181/2019 DEKRETUA, azaroaren 19koa, zeinaren bidez aitortzen baita Fundación Tutelar Usoa erakundea gizarte-interesekoa dela.

Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 74. artikuluan dago xedatuta gizarte-intereseko deklarazioa daitezkeela gizarte-zerbitzuak ematen diharduten irabazi-asmorik gabeko erakundeak, baldin eta arauz adierazitako betekizunak betetzen badituzte, aintzatesteko bai euren ibilbidea bai autonomia-erkidegoan gizarte-ekintzako hirugarren sektorean gizarte-zerbitzuak garatzeko egindako ekarpena.

Urriaren 7ko 424/2013 Dekretuak, gizarte-zerbitzuak ematen dituzten irabazi-asmorik gabeko erakundeak gizarte-interesekotzat aitortzeari buruzkoak, gizarte-intereseko aitortzea lortzeko baldintzak eta prozedura arautzen ditu.

Haren babesean, aipatutako deklarazioa eskatu du Fundación Tutelar Usoa erakundeak, uste baitu merezi duela gizarte-interesekoa dela aitortzea gizarte-ekintzaren arloan egiten dituen jarduerengatik.

Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzak dioen moduan, 1985ean Adimen-Ezintasuna duten Pertsonen aldeko Arabako Elkartearen (APDEMA) fundazio tutelar gisa eratuak fundazio bat da Fundación Tutelar Usoa erakundea, eta bere izena hainbat aldiz aldatu ondoren, Fundación Tutelar Usoa du izena gaur egun. Haren xedea da laguntza-neurriak ematea desgaitasuna duten pertsonen, hain zuzen, jarduteko gaitasuna aldatzeko prozesuaren barnean ezarritako neurriak, edo haien desgaitasunarekin zerikusia dutenak, izan prozesu judizialean izaera prebentiboarekin interesdunak berak edo horiek ezartzeko legezko gaitasuna duten pertsonen Fundazioari eman dizkietenak. Xede orokor horren barnean, Fundazioaren bestelako helburuak dira jarduera, zerbitzu, aurreikuspen erakunde mota ororen eta, oro har, zuzenean edo zeharka Fundazioaren tutoretzapeko pertsonen defentsa eta babesa hobetzen laguntzen duen bestelako ekimen ororen eraketa, perfektionamendua eta garapena sustatzea.

Ibilbide historikoa du Euskal Autonomia Erkidegoan gizarte-zerbitzuak ematen; izan ere, egiaztatu du bere jarduera etenik gabe burutu duela 2014tik aurrera Euskal Autonomia Erkidego osoan. Arabako Lurralde Historikoaren eremuan gauzatzen ditu bere jarduerak nagusiki.

Aipatu urriaren 7ko 424/2013 Dekretuan xedatutakoaren arabera, Gobernu Kontseiluak onartutako dekretu bidez egingo da gizarte-intereseko aitortzea, gizarte-zerbitzuen arloan eskumena duen sailburuak proposatuta, zeinak dagokion espedienteak izapidetu baitu.

Horrenbestez, Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuak proposatuta, eta Gobernu Kontseiluak 2019ko azaroaren 19an egindako bileran aztertu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.— Fundación Tutelar Usoa erakundea gizarte-interesekoa dela deklaratzeko, uste baita Euskal Autonomia Erkidegoan gizarte-zerbitzuak garatzen laguntzen duela gizarte-ekintzako bere jardueren bidez.

2019ko azaroaren 25a, astelehena

2. artikulua.– Fundación Tutelar Usoa erakundeari deklarazio honen berezko eskubideak aitortzea, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 74. artikuluan xedatutakoak.

Vitoria-Gasteizen, 2019ko azaroaren 19an.

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Enpleguko eta Gizarte Politiketako sailburua,
BEATRIZ ARTOLAZABAL ALBENIZ.